

Ur-biltegiak Carlos Marcote artista arabarraren azken margolanen erakusketa hartuko du

Montehermoso kulturuneko ur-biltegian Carlos Marcote artista arabarraren erakusketa ikusi ahalko da ostiraletik irailaren 23ra arte. Margolari errealista horrek udal espazio batean egiten duen lehen erakusketa da, *“beraz, akats historiko bat konpondu dugu, eta haren lanaz gozatzeko aukera ematen, arte eta kultura garaikidea hedatzeko duen bokazioa berriro erakusten duen espazio batean”*, azaldu du Kulturako zinegotzi Estíbaliz Cantok.

Formatu ezberdineko ehun eta berrogei lanek osatzen dute erakusketa. Gaien arabera multzokatu dira lanak ur-biltegiako hormetan: Arabako paisaia, erakusketaren protagonista nagusietako bat; landa ingurunea, non paisaia industrial eta urbanoak ere topatzen ditugun, eta senide eta lagunen erretratu ugari.

Carlos Marcote Agurainen jaio zen, 1950ean, eta Antonio Lópezen ikaslea izan zen, Madrilgo San Fernando Arte Ederren Akademian. Haren hitzetan, artista mantxatar handia oso eragin onuragarria izan zen: *“harekin ikasi zuen begiratzeko eta hasieran beste estilo batzuk probatu bazituen ere, laster egin zuen errealismoaren hautua. Eta orain haren pintura sorkuntzaz gozatzeko aukera dugu, haren koadroetan islatzen dituen giroen atmosferaz eta magiaz”*, azaldu du Estíbaliz Cantok.

Ibilbide profesional luzea egin du Marcotek, eta hainbat lekutan dituzte haren lanak: ARTIUM, Reina Sofía museoa, Cuencako Museoa —bertan bizi izan zen—, Filadelfia, Virginia...; hiri askotan egin ditu erakusketak: New York, Los Angeles, Madril, Bilbo eta beste.

Carlos Lalastra izan da erakusketaren komisarioa, Dani Castillejok idatzi du aretoko orria, eta Silvia San Miguelen musikak girotzen du. Uztaileko eta iraileko larunbat eta igandeetan bisita gidatuak eskainiko dira.

Ertibil erakusketa

Bestetik, uztailearen 6tik (ostirala) aurrera “Ertibil” ikus arteen erakusketa ibiltaria ikusi ahalko da Montehermoso kulturunean, zeina lehiaketa horretan saritu eta hautatutako lanek osatzen baitute; sorkuntza joera berriak erakusteko eta arte garaikidea herritarrei hurbiltzeko helburua du lehiaketak. 1983an sortu zen, eta pintura, eskultura, grabatua, argazkia eta bideoa barne hartzen ditu.

Aurtengo edizioan 90 artistak hartu dute parte, eta 124 lan aurkeztu dira. Horien artetik hautatu dira 2018ko Ertibil erakusketa osatzen duten 18 lanak.

El Depósito de Aguas acoge una exposición con la obra pictórica reciente del artista alavés Carlos Marcote

El Depósito de Aguas, del Centro Cultural Montehermoso, acogerá desde este viernes y hasta el próximo 23 de septiembre una exposición del artista alavés Carlos Marcote. Es la primera muestra que el pintor realista realiza en un espacio municipal *“con lo que saldamos un error histórico y damos la oportunidad de disfrutar de su obra en un espacio que vuelve a demostrar su vocación de centro artístico difusor del arte y de la cultura contemporánea”*, ha explicado Estíbaliz Canto, concejala de Cultura.

La propuesta expositiva se configura en torno a ciento cuarenta pinturas de diferentes formatos. Las obras se extienden a lo largo de las paredes del Depósito de Aguas agrupadas en distintas temáticas: el paisaje alavés, uno de los grandes protagonistas de la muestra; el entorno rural, donde se suman paisajes industriales y urbanos; y, por último, un amplio número de retratos de familiares y amigos.

Carlos Marcote, nacido en Agurain en 1950, fue alumno de Antonio López en la Escuela Superior de Bellas Artes de San Fernando. Del gran artista manchego dice que fue una influencia muy positiva *“con él aprendió a mirar, y aunque en sus inicios exploró otros estilos, pronto optó por el realismo. Y ahora se nos presenta la posibilidad de disfrutar con su creación pictórica; con la atmósfera y magia de los ambientes que plasma en sus cuadros”*, ha explicado Estíbaliz Canto.

Con una amplia trayectoria profesional, Marcote tiene obras en ARTIUM, en el Centro Museo Reina Sofía, en el Museo de Cuenca –ciudad en la que residió–, en Filadelfia, Virginia..., además ha expuesto en numerosas ciudades: Nueva York, Los Angeles, Madrid, Bilbao, etc.

La exposición –en la que habrá visitas guiadas los sábados y domingos de julio y septiembre– cuenta con el comisariado de Carlos Lalastra, con la música de Silvia San Miguel y la hoja de sala está escrita por Dani Castillejo.

Muestra Ertibil

El Centro Cultural Montehermoso acogerá también desde el próximo viernes 6 de julio la Muestra Itinerante de Artes Visuales Ertibil en la que se exponen las obras premiadas y seleccionadas de este certamen cuyo objetivo es mostrar las nuevas tendencias creativas, así como acercar el arte contemporáneo a la ciudadanía. Surgida en 1983, abarca las modalidades de pintura, escultura, grabado, fotografía y vídeo.

En la edición actual han participado 124 obras, correspondientes a 90 artistas de todas las especialidades. Entre las obras presentadas se han seleccionado los 18 trabajos que componen la exposición Ertibil 2018.